

1. BALOREZKO PROPOSAMENA

Betidanik hainbat fenomeno klimatiko eta gatazka politiko egon dira, azkenak Valentziako dana, Zamorako suteak eta Palestina eta Israelen arteko guda izan dira, besteak beste. Honen ondorioz, hainbat familiek haien etxeak etab. galdu dituzte. Haiei laguntzeko eta egoera hain txar batean bizitzea sahiesteko, aterpolis proiektua sortu dugu. Proiektu hau eraikin tenporalak eraikitzean datza, material ekologikoak erabiliz.

Horri dagokionez, gure produktuak hainbat arazo konpontzeko lagundu ditzake. Adibidez, Afganistan ekialdeko lurrikararen ondoren, lehentasun humanitarioa da hondakinak kentzea eta babeslekuak azkar, seguru eta modu jasangarrian berreraikitzea. Testuinguru horretan, gure produktua irtenbide ezin hobea da kaltetutako komunitateen berehalako eta epe luzeko beharrei erantzuteko.

Esan den bezala, gure produktuaren helburua egoera kritikoetan dauden pertsonen laguntzea da, unean uneko suteetatik hasita, guda internazionaleraino. Horrekin, jendeak ez du baldintza txarretan edo kalean lo egiten egon beharko, bizitzen ari diren egoerak konpondu arte. Gainera, gure produktua berrerabilgarria da, hau da, familia batek edo pertsona-talde batek gure produktua behar izateari uzten dionean, beste familia bati laguntzeko erabiliko da, eta horrela hurrenez hurren.

Aterpolis proiektuak arazo larri gero eta ohikoago batzuei erantzuten die: tenperatura eta eguraldiaren aldaketek sortzen dituzten arazoek, adibidez Valentzian gertatzen diren danak, etxe asko suntsitzen dituzte, eta horrek familia asko etxerik gabe uzten ditu. Egoera horietan, premiazko laguntza behar da, baina gaur egungo laguntzak ez dira beti azkarrak ezta eraginkorrak ere. Askotan, laguntza berandu iristen da, eta jende askok egun edo aste asko egoten dira etxerik gabe, baldintza txarretan.



Gure adreilu sistema erraz erabiltzekoa da, eta horri esker, kaltetuta izan den pertsona batek, laguntza minimoarekin, denbora gutxitan beraien etxea eraikitzeko gai izango gara. Ez da behar ez eraikuntzan esperientziarik, ezta tresna konplexurik ere, eta horrek aukera ematen du azkar jarduteko, sarbide zailak dituzten lekuetan ere. Piezak lego modukoak dira, eta oso erraz eta modu seguru batean elkartzen dira. Gure sistemak etxebizitza duinak, seguruak eta ekologikoak eraikitzeko aukera ematen du, azkar eta erraz, pertsonen beharrei lehentasuna ematen.

Horrela, egoera zailetan eta larrialdi egoeretan, denbora batez bizitzeko etxe egokiak eskaintzen ditugu, pertsonak babestuta egon daitezen etxebizitza iraunkorrago bat lortu arte. Gure helburua da inor ez geratzea babesik gabe, eta momentu gogorretan laguntza eraginkorra ematea.

Nahiz eta gure sistemaren helburu nagusia irtenbide azkar eta aldi baterako bat eskaintzea izan, adreiluak sortzeko materialak oso sendoak eta iraunkorrak dira, eta horri esker, etxea denborarekin handitu edo sendotu daiteke beharrezkoa bada. Horrek esan nahi du etxe hauek pixkanaka-pixkanaka egitura egonkor eta iraunkorrago bihurtzeko, pertsona

kaltetuek egoerara egokitu ahal izateko. Era berean, sistema erraz egokitzen denez, kostuak murrizten dira epe luzera eta hondakinik gabe amaitzeko aukera ematen du, larrialdiaren ondoren baliabideak aprobetxatuz.

Lehenik eta behin, diseinuaren aldetik, gure produktuaren oinarria hautsa moduko materiala da, kantitate handietan gorde daitekeena, espazio handirik okupatu gabe. Ura gehitzean eta moldeetan jartzean, gogortu egiten da, eta LEGO itxurako adreilu trinkoak sortzen dira. Horrela, leku gutxiago okupatzen du, eta behar izanez gero, adreiluak azkar egin daitezke.



Adreiluak sortzeaz gain, lauzak eta eraikin edo etxe bat sortzeko funtsezkoak diren bestelako elementuak ere sortzen ditugu (teilaturako teilak...). Era berean, produktu horiek erraz pilatzen dira, beren lotura-sistemari esker. Esan dugun bezala, lauzek eta adreiluek sistema bat dute, eta puzzle baten moduan lotu daitezke, errazago pilatuz.

Honekin lotuta, adreiluak eta lauzak egiteko erabili nahi ditugun materialak hauek dira: zementua, errauts hegalarriak, harea, ura eta zuntz naturalak. Horiek urarekin nahastuta adreiluen masa sortuko dugu, eta lehortzean LEGO piezen antzeko adreilu ekologiko, solido eta erresistenteak sortuko ditugu aterpetxeak egiteko.

Kalitatea produktu ekologikoak eta ecofriendly-a erabiltzean, gure produktuak hobeak izatea egiten du, jada erabilgarriak ez direnean, horietatik desegin ahal izateko. Aurretik aipatu izan dugun bezala, nabarmendu behar da produktu horiek banakakoak direnez eta erraz desmuntatu eta muntatu daitezkeenez, beste eraikuntza batzuetarako berrerabil daitezkeela (adibidez, lehenengo, behin behineko babesleku baterako erabil daitezke, eta, gero, beste eraikin bat egiteko). Diseinua eta materiala bezalako faktoreek gure marka hobezina eta bakarra izatea egiten dute. Kontuan izan behar da; kalitatea ezinhobea izango dela, ekonomikoa eta erabiltzeko erraza ere izango da, horrela gure produktua edonork eskuratu dezake edozein momentutan.

Gure produktuak lagundu ahal ditzakeen lotutako berriak:

['Race against time' to remove rubble after recent earthquake in Afghanistan's east, says UN](#)

[Incendio en Oregon destruye cuatro casas y amenaza miles más; se salvan los viñedos de California](#)